

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

847

11/2023 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Gidari/Mendeko lanpostua betetzeko.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren abenduaren 1eko 73/2022 Ebazpenaren bitartez (abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 248 zk.) lehiaketa bidez lanpostua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deia egin zen, karrerako funtzionario moduan Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Gidari/Mendeko plaza bat betetzeko; lanpostu hori 2022ko ezohiko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio, eta salbuespenezkoa da.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegian enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoean eta oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautuko da hautaketa-prozesua. Oinarri horiek azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2022ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.)

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarri orokorren seigarren oinarriko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da, Lehendakariaren ebazpen bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da. Interesdunei 10 eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko. Aurreikusitako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Hori guztiori aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Gidari/Mendeko lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko, ebazpen honen eranskinean jasoa dagoen moduan.

Bigarrena.– Argitaratzea onartutako eta bazter utzitako izangaien zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, bai eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web-orrian ere.

Hirugarrena.– Interesdunei 10 eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko.

Laugarrena.– Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a.

HKEEko lehendakaria,
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,
JULIO ARTETXE BARKIN.

2023ko otsailaren 17a, ostirala

ERANSKINA

LANPOSTUA: GIDARI/MENDEKOA
DERRIGORTASUNeko 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

ONARTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Dokumentua	Abizenak eta izena
***0290**	De Los Ojos Iburguren, Jose Ramon
***5145**	Del Rio Aguirrezabala, Ania Elene
***3378**	Garcia Fuentes, Ainoa
***9284**	Lagos Ugarte, Alicia
***4336**	Olazaguirre Ugarte, Juan Tomas

BAZTER UTZITAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Dokumentua	Abizenak eta izena	Bazterturik uzteko arrazoiak
***6193**	Garcia Fernandez, Diana	PL
***7995**	Goicoechea Aristizabal, Aitor	PL
***7352**	Hajjaj Dagdag, Elarbi	PL

Bazterturik uzteko arrazoiak	Baztertzeko arrazoia
HE	Ez du hizkuntza eskakizuna betetzen